AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
*BERRIOZARKO UDALA*

**CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA EL USO DEL EUSKERA EN LA ROTULACIÓN, IMAGEN CORPORATIVA Y PÁGINAS WEB DE ESTABLECIMIENTOS DE BERRIOZAR**

**Año 2024**

**1.- OBJETO**

El objeto de esta convocatoria es fomentar el uso del euskera en los establecimientos del municipio.

Para ello, el Ayuntamiento de Berriozar subvencionará la instalación de elementos en euskera en el año 2024 de tres áreas tan importantes en la imagen y actividad diaria de los establecimientos:

- Rótulos de establecimientos
- Imagen corporativa
- Páginas web

**2.- REQUISITOS A CUMPLIR**

Las personas o entidades beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

**En cuanto a rótulos e imagen corporativa:**

- Que las personas o asociaciones tengan domicilio fiscal, sede o representación permanente en Berriozar.
- Que el establecimiento disponga de las licencias necesarias (de actividad, rótulo o toldo).
- Que el rótulo y la imagen corporativa estén redactados en euskera o en euskera y en otra lengua, y que se utilice el euskera correcto y adecuado. Para ello, las posibles beneficiarias de las ayudas podrán utilizar el servicio gratuito de traducción, corrección y asesoramiento del Servicio de Euskera del Ayuntamiento.
- Si los rótulos se realizan en euskera y en otra lengua, el texto que aparezca en cada idioma deberá ser similar en tamaño, ubicación y demás características.
- No se concederán subvenciones cuando en el rótulo o en la imagen corporativa aparezca únicamente el nombre propio del

**DIRULAGUNTZA DEIALDIA, BERRIOZARKO ESTABLEZIMENDUETAKO ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEKO**

**2024. urtea**

**1.- HELBURUA**

Deialdi honen helburua da udalerriko establezimenduetan euskararen erabilera sustatzea.

Horretarako Berriozarko Udalak dirulaguntzak emango ditu establezimenduen irudian eta eguneroko jardueran hain garrantzitsuak diren hiru arlo hauek euskaraz jartzeko 2024. urtean:

- Establezimenduetako errotuluak
- Irudi korporatiboa
- Webguneak

**2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Pertsona edo entitate onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

**Errotuluei eta irudi korporatiboari dagokienez:**

- Helbide fiskala, egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Berriozarren duten pertsonek edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntzak.
- Establezimenduak beharrezko lizentziak izatea (jarduerakoa, errotulua edota toldoa jartzekoa).
- Errotulua eta irudi korporatiboa euskaraz edo euskaraz eta beste hizkuntzaren batean idatzita egotea, eta euskara zuzena eta egokia erabiltzea. Horretarako, laguntzen onuradun izan daitezkeen haiek Udaleko Euskara Zerbitzuaren doako itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua erabili ahalko dute.
- Errotuluak euskaraz eta beste hizkuntza batean egiten badira, hizkuntza bakoitzean agertzen den testuak antzekoa izan beharko du neurriari, kokapenari eta gainerako ezaugarriei dagokienez.
- Ez da dirulaguntzarik emanen errotuluan

establecimiento, la mención al tipo de trabajo o actividad profesional también deberá estar en euskera.

- Las inscripciones con vistas al exterior de los establecimientos estarán redactadas en euskera o euskera y en otra lengua.

**Respecto a los sitios web:**

- Los contenidos de la web estarán redactados al menos en euskera. Esto no impide que esté escrito en alguna otra lengua.
- La calidad y corrección del lenguaje de la web son imprescindibles.
- Web activa: se deberá medir las visitas y actualizar la web, y tendrá que ser de una calidad mínima.
- Si dentro de los contenidos del sitio web existen materias legalmente protegidas, la persona solicitante debe estar en posesión de la licencia sobre dichos contenidos.

Se presentarán las facturas emitidas a partir del 1 de enero de 2024.

El Ayuntamiento concederá una sola vez a cada solicitante la subvención correspondiente a cada área. La persona solicitante de la subvención se compromete a mantener los elementos subvencionados en euskera.

**Quedan excluidos del ámbito de aplicación de esta convocatoria de subvenciones las siguientes páginas web:**

- Páginas web personales.
- Espacios vinculados a cualquier institución docente.
- De contenido ofensivo o contrario a los derechos de las personas.
- Webs de partidos políticos.
- Las que limiten el acceso a los contenidos o soliciten el pago para acceder.
- Páginas web ya subvencionadas por el Ayuntamiento, y mantenimiento de páginas web.

**3.- LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES**

**Lugar**: Las solicitudes se presentarán a través del registro telemático del Ayuntamiento de Berriozar:

https://sedeelectronica.berriozar.es/carpeta-ciudadana/

edota irudi korporatiboan izen berezia bakarrik agertzen denean; lan motaren edo jarduera profesionalaren aipamena hartuko da kontuan.

- Establezimenduetan kanpora begira jartzen diren inskripzioak euskaraz edo euskaraz eta beste hizkuntzaren batean idatzita egonen dira.

**Webguneei dagokienez:**

- Webgunearen edukiak gutxienez euskaraz idatzita egonen dira. Horrek ez du eragozten beste hizkuntzaren batean ere idatzita izatea.
- Webgunearen hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ezinbestekoak dira.
- Webgunea elikatzea: bisita kopurua neurtzea, eguneratzea eta kalitatezkoa zein erabilgarria izatea.
- Webgunearen edukien barruan legez babestutako gairik baldin badago, eskatzaileak eduki horien gaineko lizentziaren jabe izan behar du.

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako fakturak aurkeztuko dira.

Udalak eskatzaile bakoitzari behin bakarrik emango dio arlo bakoitzari dagokion dirulaguntza. Dirulaguntzaren eskatzaileak konpromisoa hartuko du diruz lagundutako elementuak euskaraz edukitzeko aurrerantzean ere.

**Honako webguneak dirulaguntza deialdi honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira:**

- Webgune pertsonalak.
- Edozein irakaskuntza erakundeei lotutako guneak.
- Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoa dutenak.
- Alderdi politikoen webguneak.
- Edukietara sartzeko mugaren bat jartzen dutenak, edo zerbitzuaren truquean ordainketa eskatzen dutenak.
- Udalak lehendik diruz lagundutako webguneak, eta webguneen mantentze-lanak.

**3.- ESKARIAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

**Lekua**: Eskaerak Berriozarko Udalaren erregistro telematikoaren bidez aurkeztuko dira:

https://sedeelectronica.berriozar.es/eu/carpeta-

La presentación de la solicitud supone la aceptación de todos los requisitos recogidos en la convocatoria.

**Plazo**: La subvención se podrá presentar durante todo el año 2024, una vez realizado el gasto. Los gastos presentados serán los correspondientes al año 2024.

**4.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR**

Para acceder a la subvención, se deberá presentar en el Registro electrónico del Ayuntamiento de Berriozar la siguiente documentación:

1. Impreso de solicitud debidamente cumplimentado, indicando los datos de la persona solicitante y los documentos que se adjuntan. El formulario estará disponible en la web berriozar.es.
2. Fotocopia del DNI de la persona responsable o representante de la entidad o establecimiento solicitante.
3. Facturas originales.
4. Una fotografía del rótulo o imagen corporativa subvencionada. Si fuera renovación de un elemento ya existente, una fotografía del elemento antiguo.
5. En el caso de que la subvención se haya solicitado para la página web, memoria de la actividad a la que se refiere.

Las personas solicitantes deberán aportar, si Ayuntamiento lo requiriera, información complementaria que resulte clarificadora para el cumplimiento de los fines de la convocatoria.

**5.- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN Y CUANTIFICACIÓN DE LAS SUBVENCIONES**

Para el cálculo de las subvenciones a conceder se tendrá en cuenta el siguiente criterio:

**a) Rótulos:**

- El 75% del coste del nuevo elemento rotulado, hasta un máximo de 350,00 euros.
- El 90% del coste de la renovación del antiguo elemento rotulado, hasta un máximo de 350,00 euros.

**b) Imagen corporativa:**

- El 75% del coste del nuevo elemento de imagen coorporativa, hasta un máximo de 350,00 euros.
- El 90% del coste de la renovación del antiguo elemento de imagen coorporativa, hasta un

ciudadana/

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

**Epea**: Dirulaguntza 2024 urte osoan aurkeztu ahalko da, behin gastua eginda. 2024 urteari dagozkion gastuak izanen dira aurkezten direnak.

**4.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

Dirulaguntza jaso ahal izateko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Berriozarko Udalaren Erregistro elektronikoan:

1. Eskaera-inprimakia behar bezala beteta: eskatzailearen datuak eta eransten diren dokumentuak adierazita. Inprimakia eskuragarri egonen da berriozar.eus gunean.
2. Entitate edo establezimendu eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.
3. Jatorrizko fakturak.
4. Diruz lagundutako errotuluaren edo irudi korporatiboaren argazki bat.
5. Dirulaguntza webgunerako eskatu bada, horri dagokion jardueraren memoria.

Udalak hala eskatuz gero, deialdiaren helburuak betetzeko argigarria den informazio osagarria aurkeztu beharko dute eskatzaileek.

**5.- DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK**

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, honako irizpidea hartuko da kontuan:

**a) Errotuluak:**

- Errotulu-elementu berriaren kostuaren % 75 izango da, gehienez 350,00 euro arte.
- Errotulu-elementu zaharra berritzearen kostuaren % 90 izango da, gehienez 350,00 euro arte.

**b) Irudi korporatiboak:**

- Irudi koorporatibo elementu berriaren kostuaren % 75 izango da, gehienez 350,00 euro arte.
- Irudi koorporatibo elementu zaharra berritzearen kostuaren % 90 izango da, gehienez 350,00 euro arte.

Irudi korporatibotzat hartuko dira ibilgailuetako errotulazioa, paperezko poltsak eta poltsa konpostagarriak, biltzeko papera, karta-azalak,

máximo de 350,00 euros.

Se considerarán imágenes corporativas la rotulación de vehículos, bolsas de papel y compostables, papel de embalaje, sobres, hojas con membrete, tarjetas de visita, talonarios, albaranes, facturas, etc.

**c) Sitios Web:**

- El Ayuntamiento sufragará el 50% del coste de la nueva web bilingüe, hasta 450,00 euros.
- El Ayuntamiento sufragará el 90% del gasto de traducción al euskera de una página web existente, hasta 450,00 euros.

La página inicial del sitio web ofrecerá la posibilidad de elegir el idioma (euskera y otro u otros idiomas), y los contenidos serán en euskera y en otro u otros idiomas, o bien, la web se abrirá directamente en euskera.

No se subvencionarán aquellas webs que se abran directamente en castellano, aunque luego se permita la elección del euskera.

Cada lengua tendrá su propio canal, y el uso de las lenguas será igualitario (en la página de inicio tampoco se priorizarán otras lenguas frente al euskera).

**6.- ADJUDICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN**

Una vez recibido el informe del Servicio de Euskera, la Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Berriozar decidirá las subvenciones correspondientes a las solicitudes recibidas. Las subvenciones se adjudicarán por orden de registro hasta agotar la partida (2000 euros, aplicación presupuestaria: 1 33500 4890007 SUBVENCIONES ROTULACIÓN EUSKERA).

En el caso de que el informe del Servicio de Euskera sea favorable y no sea posible conceder la subvención por agotamiento de la partida, la persona o entidad solicitante podrá volver a solicitar la subvención en los tres primeros meses del año siguiente. El Ayuntamiento lo comunicará a la persona solicitante.

En ningún caso la cuantía de la subvención podrá ser superior al concepto subvencionado, añadiendo a la subvención concedida por esta convocatoria otras ayudas, ingresos o recursos. De hecho, si así ocurre, se devolverá el importe excesivo, incluido el interés de demora.

En consecuencia, la persona o entidad beneficiaria comunicará al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos por el concepto subvencionado. La notificación se realizará tan pronto como conozca otra ayuda y, en todo caso,

orri idazpurudunak, bisita-txartelak, taloitegiak, albaranak, fakturak, etab.

**c) Webguneak:**

- Elebiko webgune berriaren kostuaren %50 ordainduko du Udalak, 450,00 euro arte.
- Existitzen den webgune bat euskarara itzultzearen gastuaren %90 ordainduko du Udalak, 450,00 euro arte.

Webgunearen hasierako orriak hizkuntza hautatzeko aukera eskainiko du (euskara eta beste hizkuntza bat edo batzuk), eta edukiak euskaraz eta beste hizkuntza batean edo batzuetan izango dira, edo bestela, webgunea euskaraz irekiko da zuzenean.

Ez dira diruz lagunduko zuzenean gaztelaniaz irekitzen diren webguneak, nahiz eta gero euskara hautatzeko aukera eman.

Hizkuntza bakoitzak bere kanala izanen du, eta hizkuntzen erabilera parekatua izanen da (hasierako orrian ere ez da beste hizkuntzarik lehenetsiko euskararen aldean).

**6.- DIRULAGUNTZAREN ESLEIPENA**

Euskara Zerbitzuaren txostena jasota, Udaleko Gobernu Batzordeak erabakiko ditu jasotako eskaerei dagozkien dirulaguntzak. Dirulaguntzak erregistroko dataren araberako hurrenkeran esleituko dira, diru-saila agortu arte (2000 euro, aurrekontu aplikazioa: 1 33500 4890007 SUBVENCIONES ROTULACIÓN EUSKERA).

Euskara Zerbitzuaren txostena aldekoa izanda ere, dirulaguntza ematerik ez badago, kontu-saila agortuta dagoelako, eskatzaileak berriro eskatu ahalko du dirulaguntza hurrengo urteko lehenengo hiru hilabeteetan. Udalak horrela jakinaraziko dio eskatzaileari.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inoiz izanen diruz lagundutako kontzeptua baino handiagoa eta horretarako deialdi honek emandako dirulaguntzari bestelako laguntza, sarrera edo baliabideak ere gehituko zaizkio. Izan ere, horrela gertatzen bada, gehiegizko zenbatekoa itzuliko da, berandutze interesa barne.

Hortaz, pertsona edo entitate onuradunak dirulaguntza ematen dion organoari diruz lagundutako kontzeptuarengatik jasotako bestelako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideen berri emanen dio. Jakinarazpena eginen du bestelako laguntza ezagutu bezain laster eta, edonola ere, jasotako dirua nola erabili duen justifikatu baino lehen.

antes de justificar la aplicación que da a la misma.

**7.- PROTECCIÓN DE DATOS**

El Ayuntamiento de Berriozar es el responsable del tratamiento de los datos de las personas solicitantes o beneficiarias y de aquellas personas cuyos datos consten en los documentos que se deben presentar junto con la solicitud o justificación de gastos.

El objeto del tratamiento es la gestión de las subvenciones en los términos establecidos en las bases de la convocatoria.

El fundamento legítimo es el artículo 6.1.e) del Reglamento (CE) 2016/679 (cumplimiento de una función de interés público), de conformidad con la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra y la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

La cesión de datos se realizará de conformidad con lo establecido en la citada Ley de Subvenciones y en la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Los datos se conservarán de conformidad con la Ley Foral 12/2007, de 4 de abril, de Archivos y Documentos y la Orden Foral 51/2016, de 14 de junio.

Derechos: acceso, rectificación y supresión de datos, así como otros derechos, tal y como se explica en la información adicional. Información adicional: La información adicional sobre los tratamientos de datos y el delegado de protección de datos está disponible en la web municipal, en el apartado de política de privacidad www.berriozar.eus dpd@berriozar.es

**8.- LEGISLACIÓN REGULADORA**

La convocatoria se regirá por las bases aquí expuestas. En todo lo no previsto en el presente documento se estará a lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en la Ley Foral de Administración Local de Navarra, en la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra y en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Berriozar.

**9. RÉGIMEN DE RECURSOS:**

Contra la presente convocatoria, sus bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos:

- Recurso de reposición ante el mismo órgano municipal autor del acto administrativo en el plazo de un mes a partir del día siguiente de

**7.- DATUEN BABESA**

Berriozarko Udala da pertsona eskatzaile edo onuradunen datuen tratamenduaren arduraduna eta eskabidearekin edo gastuen justifikazioarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuetan agertzen diren datuak dituztenen arduraduna ere.

Tratamenduaren xedea da dirulaguntzak kudeatzea, deialdiaren oinarriek arautzen duten moduan.

Oinarri legitimoa 2016/679 (EE) Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua da (interes publikorako zeregina betetzea), Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin bat eginik.

Datuen lagapena eginen da aipatutako Dirulaguntzei buruzko Legeak eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak ezarritakoaren arabera.

Datuak gordeko dira Artxiboei eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearekin eta ekainaren 14ko 51/2016 Foru Aginduarekin bat eginik.

Eskubideak: datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatu, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azalduta dagoen bezala. Informazio gehigarria: datuen tratamenduei buruzko eta datuak babesteko ordezkariari buruzko informazio gehigarria udalaren webgunean dago eskuragarri, pribatutasun politika atalean www.berriozar.eus dpd@berriozar.es

**8.- ARAUTZEKO LEGEDIA**

Deialdia hemen azaldutako oinarrien arabera arautuko da. Agiri honetan esaten ez denaz ebazteko, bertan aurreikusi ez den orotan, honako arau hauetan ezarritakoaren arabera: diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea eta Berriozarko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

**9. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA:**

Deialdi honen, oinarrien eta horiek betetzeko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, honako errekurtso hauek jarri ahal izango dira, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio-

la notificación o, en su caso, publicación del acto que se recurra.

- Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo del mes siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.
- Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso- Administrativo de Pamplona en el plazo de dos meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

egintza egin duen udal-organoaren aurrean, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

- Gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo hilabeteko epean.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.